

Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendariaren 2025eko azaroaren 5eko **EBAZPENA**, 2025-2026 ikasturterako Ikasiker lankidetza–beketan zuzendu beharreko eskaerak zerrendatzen dituen.

GERTAKARIAK

Lehena.- Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko abuztuaren 28ko Aginduaren bidez Ikasiker lankidetza–beketarako deialdia egin zen, 2025-2026 ikasturterako (2025eko irailaren 5eko EHAA, 168. zk.).

Bigarrena.- Aginduak 9. artikuluan xedatutakoa jarraituta, eskaerak aurkezteko epea 2025eko urriaren 6an bukatu zen.

Hirugarrena.- Aginduak 10.4 artikuluan xedatzen duenez, eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio zuzenketak egin ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituta.

Ondorioz

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean aipatzen diren zuzendu beharreko eskaeren zerrenda argitara ematea.

Bigarrena.- Hamar eguneko zuzentze-epea ezartzea. Zuzentze-epea 2025eko azaroaren 6tik azaroaren 19ra arte izango da, biak barne.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, epe hori igaro eta gero, interesdunak ez baditu agiriak aurkezten, eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Itziar Fernandez Villanueva
Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko zuzendaria